



HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

2025eko azaroaren 4ko saioa

Bi mila eta hogeita bost urteko azaroaren 4an arratseko zortzietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

Presente ziren: FALXA Odile, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Ahalordeak: DACHAGUER Peiok LEKUMBERRY Xantxori

Ezin etorriak: AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, HEGUY Antton, GOICOECHEA Iñaki

Saioko idazkaria: FALXA Odile

Deialdiaren data: 2025eko urriaren 31a

Afixatze data: 2025eko urriaren 31a

3. ERABAKIA: A 857 LUR SAILA LARLA SOZIETATEARI SALTZEA (3.2 nomenklatura)

Auzapezak azaldu du herria honako lur sailaren jabe dela Xerrenda deitu lekuan: 299 m²ko A-857 saila.

Larla sozietateko kudeatzaileak adierazi digu lur sail hori erosi nahi duela.

Auzapezak adierazi du Larla sozietatea A-855 sailaren jabe dela, zeina A-857 sailaren kontra baita (eraikin profesionala eta Aldabia saltokia).

Zehaztu du A-857 saila eraikigarria dela.

Proposatu du lur saila m²-ko 60 €tan saltzea, hots orotara 17 940 €, zehazturik notario eta geometro gastuak eroslearen gain izanen direla.

Auzapezaren azalpenak entzunik eta luzaz eztabaidaturik, Herri Biltzarrak,

- **ERABAKI DU**, A-857 lur sala (299 m²ko azalerakoa) 17 940 €tan Larla sozietateari saltzea.
- **ZEHAZTU DU** geometro eta notario gastuak eroslearen gain izanen direla.
- **AGINDU DIO**, Auzapezari, lur sailaren saltzeko beharrezkoak diren izapide guzien egitea, besteak beste lur sailaren saltzeko notario akten izenpetzea.

Jardunean diren kideak: 15

Presente direnak: 8

Adierazi diren bozkak: 10 (9 presente eta ahalorde 1)

ALDE: 10

KONTRA: 0

ABSTENTZIOA: 0

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZE, 2025eko azaroaren 13an

Auzapeza:

Auzapeza Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,
2025eko azaroaren 13an argitaratu edo jakinarazi ondotik
eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.